



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
Maria Izaskun Altxu Ariztegi

2017ko irailaren 26an, 15:30ak direnean, Ohiko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 3 Bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen dira aktak.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

M.A.T.I.k lizentzia eskatu zuen *Luiseneko* baratzen erori den pareta konpontzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da obrak egiteko lizentzia ematea T. andreari, betebeharrak hauek konplitzera baldintzatuta:

- Kantauriko Ur-Konfederazioko baimena behar izanez gero, sustatzaileak lortu beharko du.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen; obraren aurrekontu idatzia aurkeztu beharko du Udaletxean.
- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispentako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen).
- Hirugarrengoen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egin. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. IKASTETXE PUBLIKO BERRIRAKO URBANIZAZIOA.

Gaia mahai gainean utzi da.

4. IGERIZARRETAKO OBRA.

1. *Igerizarretako* presa botatzeko lanak hasi direla ikusirik eta bidearen azpitik errekararen doan tutua eta kanala kentzea aurreikusia dagoela kontuan izanda, aho batez erabakitzen da Nafarroako Gobernuari eskatzea tutua zein kanala mantentzea dauden bezala.

2. Iturgintza Berotza SL-k idatzia aurkeztu zuen, *Igerizarretako* presa botatzean ateratako harriak ematea eskatuz, arrauntzia birgaitzeko erabili ahal izateko. Alkateak azaldu du Udalari eskaini ziola Gobernuak harria, presako obrak errematatzeke behar zena salbu. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da Udalari dagokion harria ematea eskatzaileari.

5. ESKABIDEAK.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. J.A.A.H.ek baimena eskatu zuen *Mendaurko pistan* erori den arbola aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabakitzen da A. jaunari saltzea arbola 12 eurotan.

2. Eskola zuzendariak eskatu zuen konponketa batzuk egitea sukaldean. Eginak daudela adierazi du alkateak.

Jose M. Alzuri bilerara sartu egin da.

3. C.E.A.k zerrenda bat aurkeztu zuen *Herriko Ostatuan* uzteko Udalak ordainduz gero. Gaia mahai gainean utzi da.

6. MOZIOAK.

Aho batez onetsi da “*Kataluniarekin bat, Demokraziarekin bat*” izenburuko mozioa.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/29 zenbakia, 2017ko uztailaren 11koa, zeinean erabaki baitzen *Herriko Ostatu*ko ordutegia luzatzea herriko bestetan.

- 2017/30 zenbakia, 2017ko abuztuaren 25ekoa, Foruzaingoaren 2016-2020ko Plan Zuzentzailean parte hartuz.

- 2017/31 zenbakia, 2017ko irailaren 1ekoa, zeinean erabaki baitzen hasiera batez onestea hirigintzako hitzarmena B.N. eta beste batzuekin, Iturengo U.E. 1 unitatea garatzeko.

- 2017/32 zenbakia, 2017ko irailaren 1ekoa, zeinean erabaki baitzen hasiera batean onestea Iturengo U.E. 1 unitatea urbanizatzeko proiektua.

- 2017/33 zenbakia, 2017ko irailaren 4koa, zeinean erabaki baitzen M.A.ri lizentzia ematea *Zurtzaiko* erreka paretak berregiteko 1 poligonoko 245 partzelan (lehenago 30 partzela zena).

- 2017/34 zenbakia, 2017ko irailaren 4koa, zeinean erabaki baitzen J.S.ri lizentzia ematea *Latxane-txiki* etxeko teilatua eraberritzeko.

- 2017/35 zenbakia, 2017ko irailaren 4koa, zeinean erabaki baitzen M.J.A.ri lizentzia ematea *Domekeneko* baratzako pareta garbitu eta junturak hartzeko.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak —F.J.S. (2), L.I., J.I., J.M.S. eta J.A.L.renak—; sutarako egurra atera ostean egindako ikuskapen-akta; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimendua —M.J.E.n baja—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Lurralde eta Paisaia Zerbitzuak emandako txosten teknikoak *Uraren Ibilbidean* egin nahi diren obrei buruz; baso-lanak egiteko eskatu den diru-laguntza; hiri-eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen oinarriak.

9. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Eta bertzerik ezean, 16:50 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.